



# PIERROT



## GIDA DIDAKTIKOA

### 1.- EUSKADIKO ORKESTRA SINFONIKOAREN MUSIKA GELA

Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren eta gure herriko hezkuntza-eragile guztien arteko harreman egonkor bat sortzea da gure Hezkuntza Departamentuaren helburu nagusienetako bat. Aipatu harremana 2007an hasi zen, Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren 25. Urteurrenaren harira “Tempo di Martxa!” ekimena martxan jarri zenean: musika-gela ibiltari batek eskola ugaria joan eta Lehen Hezkuntzako 20.000 haur baino gehiagoren bisita jaso zuen.

### 2.- KONTAKTUA

KONTAKTUA/CONTACTO	
<b>MIKEL CAÑADA</b>	Miramon Pasealekua, 124
<b>mcanada@euskadikoorkestra.eus</b>	20014 Donostia / San Sebastian
<b>Telefonoa: 943 01 32 32 – 688 636 943</b>	<a href="http://www.euskadikoorkestra.eus">http://www.euskadikoorkestra.eus</a>

### 3.- SARRERA

Bibolin, tronpeta, piano, perkusio eta 18 dantzari eta aktoreen inguruan, beraiekin jolasean eta lanean, Pierrot txontxongiloa Ilargia lortzen, bera ukitzen, eskuratzen saiatuko da. Helburua behin eta berriz oztopatuta ikusiko du eta bukaeran bere funtsa lortuko ez duen arren garrantzitsuena eta dibertigarriena egindako bidea, musikaz gozatzea eta hainbeste jenderekin egindako prozesua dela ikusiko du.

#### 4.- FITXA TEKNIKOA

##### FITXA TEKNIKOA

**Kontzertuaren izenburua:** Pierrot

**Saioak:** Bi saio egunean

**Eguna eta ordua:** 2018ko urtarrilaren 22, 23, 24, 25 eta 26an 10:00etan eta 11:15etan.

**Tokia:** Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren Egoitza Miramonen (Donostia)

**Iraupena:** 40 minutu

**Zein publikoari zuzendua:** Haur hezkuntzako ikaslegoari

**Aforoa:** 160

#### 5.- FITXA ARTISTIKOA

##### FITXA ARTISTIKOA

**Interpretatzaileak:**

**EOS-eko musikariak eta kolaboratzaileak**

- Cristina Vértiz, bibolina
- Didier Bousquet, tronpeta
- Anthony Lafargue, perkusioa
- Pedro José Rodríguez pianoa

**Aktore eta dantzariak:**

**Dantzertiko ikasle/irakasleak**

**Gidoia:**

- Mikel Cañada eta Dantzerti

**Gida didaktikoa:**

- Ana Eguiazabal

## 6.- JARDUERAREN HELBURUAK

### JARDUERAREN HELBURUAK

- Musika-adierazpen artistikoa ezagutzea eta baloratzea.
- Sortzeko eta pentsatzeko gaitasuna garatzea.
- Sentimendua, zentzua eta sentsibilitatea garatzea.
- Baloreetan hezteak, musikaren bidez.
- Pertzepzio-mailen garapen fisikoa sustatzea.
- Soinuaren aukeretan murgiltzea eta sakontzea.
- Musika eta bere lengoaiaren edo mezuaren eta ingurunearen arteko lotura bilatzea.
- Entzutea eta parte hartzeko nahia sustatzea.
- Entzuteko modu apropos eta arduratsu bat garatzea.
- Bibolina, tronpeta, pianoa eta perkusioaren funtzionamendua, tinbrea, eta abar gertuagotik ezagutzea.
- Dantza mota desberdinak ezagutzea
- Pultsazio eta erritmo desberdinen barneratzea garatzea dantzaren bidez.
- Mugimendu desberdinek musika desberdinekin izan dezaketen loturaz jabetzea eta oinarrizko maila batean garatzea eta praktikan jartzea.
- Arte mota desberdinak elkarlanean ikustea eta elkarren arteko erlazioaz oinarrizko maila batean jabetzea.
- Lehenago entzundako obrak entzutean ezagutzeko gaitasuna garatzea.
- Espresio artistikoa gauzatzeko nahia sustatzea.
- Oinarrizko mailan musika karaktere desberdinak sentimendu, egoera eta bizipen ohikoekin erlazionatzeko gai izatea.

## 7.-EGITARUA

EGITARUA	
1.Jazz Suite 1: Waltz	Dmitri SHOSTAKOVICH
2.Jazz Suite 1: Polka	Dmitri SHOSTAKOVICH
3.Jazz Suite 1: Foxtrot	Dmitri SHOSTAKOVICH
4.Jazz Suite 2: Waltz	Dmitri SHOSTAKOVICH
5.Danza Macabra	Camille SAINT-SAËNS
6.Para Elisa	Ludwig Van BEETHOVEN
7.Claro de Luna	Claude DEBUSSY

## 8.- JARDUERA MODU EGOKIAN GAUZATZEKO AHOLKUAK

### JARDUERA MODU EGOKIAN GAUZATZEKO AHOLKUAK

-Haur asko etorriko direnez saio bakoitzera, egoitzara 20 minutu lehenago etortzea eskatzen dugu, ikasleak lasaitasunez eser ditzagun, nahi duenak komunera joateko aukera izan dezan, etab. Puntualtasuna erabat beharrezkoa dugu egunean bi saio daudenez koordinazio lanak ondo gauzatu ahal izateko.

-Ezinbesteko kasuetan salbu, kontzertua hasi eta gero aretotik ez dutela irteterik izango jakinarazi eta ulertaraziko zaie ikasleei.

-Ikasgelan edo zineman bezalaxe gure aretoan ez dagoela jaterik edo edaterik ulertaraziko zaie ikasleei.

-Bertaratuek jardueraz gozatzeko aukera izan dezaten, parte hartzea eskatzen zaienean izan ezik, ahal den neurrian isilik egon beharko dutela ulertaraziko zaie ikasleei.

-Aurreko urtetako egoerak ikusirik gomendagarria iruditzen zaigu irakasleak ikasleen artean banatuta egotea. Askotan ikasleek hobe ikus dezaten irakasleak alboetan kokatzen dira eta horrelakoetan zailagoa da gerora ikasleek eskatzen zaienean parte hartzea eta jarrera egokia mantentzea.

## 9.- JARDUERA DIDAKTIKOEN GIDA PRAKTIKOA

LEHEN JARDUERA	
Helburua	Gorputza perkusiozko instrumentu bezala erabiltzea eta erritmoa garatzeko erabiltzea.
Obra	Hainbat pieza
Materiala	Hainbat esteka jokuak eta abestiak egiteko gorputz-perkusioa eta mugimendu erritmikoak erabiliz. Erritmoa garatzeko beste hainbat proposamen.
Jardueraren garapena	Kasu honetan jardueraren garapena aukeratzen den jokua edo abestiaren arabera egingo da. Abesti batzuek aurretiko azalpen bat beharko dute eta beharbada musikarik gabeko lan bat. Beste jokuek ordea ez dute beharko horrelako prestaketarik.  Hala ere, edozein jarduera hasi baino lehen, kasu honetan gorputza erabiliko dugunez komeni da gorputzaren atalekin beroketa ariketatxoren bat egitea (luzaketak, masajetxoak aurrekoari ilaran jarrita eta abar...), gorputz atalen kontzientzia hartu dezaten.

BIGARREN JARDUERA	
Helburua	Musikaren izaera eta gorputz mugimendu moten arteko lotura bilatzea mimo baten antzera
Obra	Hainbat obra desberdin
Materiala	Hainbat obren audioak
Jardueraren garapena	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Lehenik aurreko ariketetan bezala gorputza berotu, gorputz atal bakoitzaren gainean kontzientzia hartu hainbat jokuen bidez.</li> <li>2. Musika jarraituz, haren izaerarekin bat datozen mugimenduak egin.</li> </ol> <p>OHARRA 1: Kontutan izanda askotan Pierrot pertsonaia eta beste antzezleek askotan mimo itxuran jokatzen dutela aukera bat izango litzateke haurrak mota horretako mugimenduak egitera gonbidatzea. Beste aukera bat bikoteka edo taldeka ispiluaren jolasa erabiltzea litzateke.</p> <p>OHARRA 2: Nahi izan ezker, musikaren izaerari buruzko gogoeta ere egin daiteke, ikasleek tristeak, alaia... nolakoa antzematen duten jakiteko. Hau jolasa egin aurretik edo ondoren egin daiteke.</p> <p>OHARRA 3: Zenbait pieza beharbada ez dira oso errazak mugimenduak egiten hasteko, kasu horietan irakaslearen gida lagungarria izango da.</p>

HIRUGARREN JARDUERA	
<b>Helburua</b>	Dantza erritmo desberdinak ezagutu eta horiek jarraitzeko gai izatea oinarrizko maila batean.
<b>Obra</b>	Obra desberdinak
<b>Materiala</b>	Dantza desberdinen bideoak eta audioak: kontzertukoak eta beste batzuk
<b>Jardueraren garapena</b>	<p>Ikasleen adinaren arabera jarduera modu batean edo bestean gauzatuko da. Kontzertuan dantza erritmo desberdinak azaldu egingo dira eta oinarrizko mailan hauek pixka bat ezagutzeko ariketa da oraingoa.</p> <p>Aurretik beste jardueratan egin den bezala gorputza erabiliko dugunez berotzea komeni zaigu. Ondoren prozesua lehen jarduerako piezekin egin den berdina da. Irakasleak pieza desberdinak aukeratuko ditu, eta ikasleen adinaren eta gaitasunaren arabera koreografiatuz dantza horren erritmoa jarraitzera lagunduko ditu ikasleak.</p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Baltsaren kasuan borobilean egin daiteke aurrera eta atzera pausoak emanez, edo bikoteka. Konpas bakoitzaren hasiera markatu daiteke edo baltsaren oinarrizkoak diren hiru pausoak. Irakasleak gidatzen duenaren arabera.</li> <li>2. Polkaren eta galoparen kasuan abiadurak oso desberdinak direnez modu askotara egin daiteke. Bi lerroetan parez pare, alde batera eta bestera mugituz, edo irakasleari okurritzen zaion beste modu batean.</li> <li>3. Martxaren kasuan oinez gelatik zehar oinekin erritmoa markatuz izango litzateke errezena.</li> </ol> <p>OHARRA: Jarduera zenbait piezekin sinpleegia izango balitz aukera polita litzateke musikaren beste parametro batzuk lantzeko edo beste zailtasun batzuk gehitzeko. Musikaren intentsitatea handia denean pauso handiak eta txikia denean pauso txikiak, makurtu edo zutitu, gelditu eta oinez hasi musikaren zatien arabera eta abar.</p>

LAUGARREN JARDUERA	
Helburua	Kontzertuan parte hartuko duten instrumentuak gertuagotik ezagutzea
Obra	Obra desberdinak
Materiala	Instrumentu desberdinen audioak Instrumentu desberdinen bideoak Instrumentu desberdinen marrazkiak eta argazkiak
Jardueraren garapena	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Haurrek pieza entzungo dute eta bakarka edo taldeka erabaki beharko dute zein instrumentu den entzun berri dutena (bideoa bada ez dezatela ikusi, soilik entzun).</li> <li>2. Haien azalpenak entzun ondoren irakasleak zein instrumentu den esango du, instrumentu horren azalpen txiki bat emango die eta gero ahal bada bideoa ikusiko dute instrumentu hori nola jotzen den ikusteko.</li> </ol> <p>OHARRA: Jarduera hau behin baino gehiagotan egin baldin badute, zertxobait aldatzeko beste formula bat erabil daiteke. Jardueren karpetan jarritako irudiak inprimatu eta zatitu egin daitezke, puzzle bat izango balitz bezala. Piezak irauten duen bitartean, adibidez, taldeka edo bakarka puzzlea bilatu eta egin beharko dute. Edo musikak irauten duen bitartean entzuten ari diren instrumentuaren marrazkia margotu beharko dute. (Beste edozer okurritzen bazaizue ere baliogarria da).</p>

BOSTGARREN JARDUERA	
Helburua	Musika pieza berdina bertsio desberdinetan (instrumentazio aldetik) konparatzea eta haien antzekotasunak eta desberdintasunak oinarritzko maila batean komentatzea.
Obra	Hainbat obra desberdin
Materiala	Obra desberdinen audioak edo bideoak beren bertsio desberdinetan (Kontzertuko piezak eta beste pieza batzuk)
Jardueraren garapena	<p>Jarduera entretenigarriagoa egiteko beharbada nagusienekin soilik komentatu beharrean joku desberdin batekin planteatu daiteke.</p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Irakasleak pieza bat ipiniko du bertsio batean, pare bat aldiz edo ikasleek entzun dezaten.</li> <li>2. Behin pieza hori entzundakoan irakasleak beste 3 pieza jarriko ditu eta ikasleek lehenik entzun duten piezari zein dagokion asmatu beharko dute. Horrela, nahiz eta bertsio desberdinak entzun doinuak erlazionatu daitezkeela antzemango dute.</li> <li>3. Behin hori egin eta gero komentatu daiteke zein antzekotasun eta desberdintasun ikusten dituzten piezen artean, eta zein gustokoago duten eta abar ere komentatu daiteke.</li> </ol>



Pierrot

SEIGARREN JARDUERA	
Helburua	Pierrot pertsonaiaren irudia hurrek ezagutzea
Obra	
Materiala	Pierrot pertsonaiaren bideoa, irudiak eta marrazkiak
Jardueraren garapena	<p>Orokorrean Pierrot pertsonaia nahiko modu tristean azaltzen da toki guztietan, eta gainera askotan hurrek pailazo estetika duten pertsonaiekin beldurtu egiten dira, hortaz garrantzizkoa iruditzen zaigu pertsonaiari kutsu tristea kentzea eta ezagutzen dutenez izua kentzen saiatzea. Horretarako hiru proposamen dakartzagu:</p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Pierrot txontxongiloa izango dugunez emanaldian horrekin eta izango duen estetikarekin erlazionatzeko montatutako bideoa ikustea. Bideo laburra da musika alaiarekin tristezia puntua kentzeko.</li> <li>2. Pierroten argazkiak ikustea eta ikusten diren ezaugarriak komentatzea.</li> <li>3. Pierroten marrazkiak margotzea.</li> </ol>

ZAZPIGARREN JARDUERA	
Helburua	Txontxongiloen mugimenduak musikarekin bateratzea
Obra	Obra desberdinak
Materiala	Eskolan duzuen edozein txontxongilo Aurreko jardueretako piezak
Jardueraren garapena	<p>Kontzertuan erabiliko den txontxongiloa handiagoa izango den arren haurrak txontxongilo bat musikari jarraituz mugitzeko esperientzia izan dezaten honako jarduera proposatzen dizuegu.</p> <p>Eskolan dituzuen txontxongiloak erabiliz edo eraikitzen dituzuen berri batzuk erabiliz eta aurreko jardueretako piezak edo gelan erabiltzen dituzuen beste batzuk erabiliz hurrek musikaren mugimenduak jarraituko dituzte beraien txontxongiloen bitartez. Oso txikiak badira irakasleen gidak lagundu dezake, eta nahi izan ezker nagusiagoekin txontxongiloen arteko interakzioa egin daiteke.</p>

## 10.- Eranskinak

### Dantzerti

"Dantzerti" izenak esanahi argia du. Bi elementuz osatuta dago: Dantza eta Antzerti (edo Antzerki). Izen honi esker, eskolaren egitekoa garbi geratzen da; begi-bistakoa da.

Izenak, gainera, Antzerti ekarri nahi du gogora, euskaraz antzerkiaren inguruan sortu zen lehen mugimendu modernoa. Izen bereko aldizkaria ere argitaratzen zuen mugimendu horrek, euskarazko antzezlanak sortu eta klasikoak itzultzen, Sofoclesekin hasi eta Shakespearerekin segi.

Ondoren, 1980ko hamarkadan Antzerti izena hartu zuen arte dramatikoko eskola sortu zen, gerra aurreko mugimendu hari jarraipena eman nahian.

Dantzertik, beraz, dantza eta antzerkiaren arteko elkarbizitza aldarrikatu nahi du, eta euskal antzerkigintza sortzen aitzindari izan ziren haien lanari jarraipena eman.

Izan ere, kulturaren historian antzerkia eta dantza oso loturik egon baitira. Dantza eta antzerkia oso hurbileko diziplina artistikoak dira, ahaideak.

Dantzak, antzerkiak bezala, istorioak kontatzen ditu, baina estilizatuagoak, erritmoaren eta mugimenduaren bidez kontatzen du. Antzerkiak, dantzak bezala, koreografia antolatzen du, pertsonaiak hitzarekin mintzatzen dira, baina baita gorputzaren hizkerarekin ere.

Horregatik, gure eskola Dantzerti da, izena eta izana, kasu honetan ere, lotuak daudelako.